

**BARIZELA
VARICELA**

Zure seme-alabari, oraingo sintomak direla-eta, **BARIZELA** diagnostikatu zaio:

ZER DA BARIZELA?

Varicella-zoster birusak eragindako infekzio bat da, azalean likidoz betetako baba txiki batzuk sortzen dituena. Hasiera batean, buruan eta aurpegian agertzen dira, eta gero, gorputzeko gainerako ataletara zabaltzen doaz. Babakopurua aldakorra da, eta "lehortu" ondoren zarakar edo kostra batzuk geratzen diren bitartean, baba berriak agertzen dira. Horiekin batera, sukarra, azkura (handiagoa ala txikiagoa izan daiteke), buruko mina eta gosea galtzea eragin ahal du.

Lesioen itxura bereziagatik diagnostikatzen da, eta ez da beharrezkoa bestelako probarik.

NOLA KUTSATZEN DA?

Gaixoaren azaleko babak ukituz, eta arnasa-jariakinekin, adibidez, listuarekin, kutsatzen da.

Birusa kutsatu ondoren, azaleko aurreneko lesioak agertu arte, 10-21 egun bitartez igarotzen dira.

Barizela kutsagarria da babak agertu baino 2 egun aurretik hasi eta lehortu eta kostra agertu ondorengo 7 egunetara arte. Bien bitartean umea eskolara ez joatea gomendatzen da, inor ez kutsatzeko.

Barizela duen ume batek neba-arrebei kutsatuz gero, ziurrenik larrazaleko lesio gehiago edukiko dituzte haiek.

Barizelak bizi arteko defentsak sortzen ditu, eta guztiz ezhohikoa da berriro gaitetzea.

ZER EGIN?

Birusak eragindako infekzioa denez, ez da tratamendu antibiotikorik behar.

Azkura arintzeko, oloa duten azalerako produktuak erabiltzea aholkatzen da Nahikoa ez bada, pediatrik farmako antihistaminikoak agin ditzake.

Umeak sukarra badu, parasetamola ematea gomendatzen da, eta ibuprofenoa edo azido azetilsalizilikoa ez ematea.

Barizela pasatu ez duten emakume haurdunekin kontaktua ere saihestu behar da.

Kasu gehienetan eboluzioa oso ona izaten da. Hala ere, komeni da pediatrik umearen kontrola eramatea.

ZER ZAINDU BEHAR DEN

Honako sintomaren bat izanez gero, osasun-zentrora joatea gomendatzen da, umea berriro azter dezaten:

- Babak agertu ondoren, umeak bi egun baino gehiago ematen badu sukarrarekin.
- Lesioaren bat oso gorri, handituta edo zornedun badago edo mingarria bada.
- Arnasteko zailtasunak edo ez-tul bizia
- Ibiltzean oreka galtzen badu, "edanda/mozkor balego bezala".
- Begiko alde zurian (konjuntiban) lesioaren bat agertuz gero, edo umea begietako minez kexatzen bada.

Su hijo ha sido diagnosticado de **VARICELA** por los síntomas que presenta

¿QUÉ ES LA VARICELA?

La varicela es una infección por el virus varicela-zóster que produce unas lesiones típicas en la piel, en forma de pequeñas ampollas llenas de líquido. Suelen aparecer inicialmente en la cabeza y la cara y se van extendiendo a otras partes del cuerpo. El número de ampollas es variable y se van "secando" hasta formar una postilla o costra, a la vez que brotan algunas nuevas. Puede asociar fiebre y picor en grado variable, dolor de cabeza y disminución del apetito.

Se diagnostica por el aspecto típico de las lesiones y no es necesaria ninguna otra prueba.

¿CÓMO SE CONTAGIA?

Se contagia por contacto con las ampollas y a través de las secreciones respiratorias como la saliva.

El tiempo que transcurre desde que se contagia hasta que aparecen las lesiones en la piel varía desde 10 a 21 días.

La varicela es contagiosa desde 2 días antes de la aparición de las ampollas hasta 7 días después, cuando están todas secas, en forma de costra. Hasta entonces se recomienda que el niño no acuda al colegio, para evitar la transmisión.

Si un niño tiene varicela y contagia a un hermano, éste suele tener mayor número de lesiones en la piel.

La varicela deja defensas para toda la vida y es excepcional volver a tenerla.

¿QUÉ HACER?

Al ser una infección viral no necesita tratamiento antibiótico.

Se recomienda aliviar el picor con productos para la piel que contengan avena. Si no es suficiente el pediatra puede pautar fármacos antihistamínicos.

Si el niño presenta fiebre se aconseja usar paracetamol y evitar la administración de ibuprofeno y de ácido acetilsalicílico.

Se debe evitar el contacto con mujeres embarazadas que no hayan pasado la varicela.

La evolución es muy favorable en la mayoría de los casos, si bien es recomendable que el pediatra controle al niño

¿QUÉ DEBO VIGILAR?

Se recomienda acudir a un Centro Sanitario para nueva valoración si aparece alguno de los siguientes síntomas:

- Fiebre que persiste más de dos días desde el inicio de las ampollas.
- Si alguna lesión está muy enrojecida, hinchada, dolorosa o con pus.
- Dificultad para respirar o tos intensa.
- Si aparece inestabilidad al caminar, "como si estuviera bebido/borracho".
- Si se observa alguna lesión en la parte blanca del ojo (conjuntiva) o el niño se queja de dolor en los ojos.